

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

BERRI PAPERERA



AMAIA ZENTROA
Benito Perez Galdos Z/G
01002 Gasteiz
Araba
E.: araba@bertsozale.eus
T.: 945 01 05 05
www.bertsozale.eus/araba



ARABAKO GAZTE SORTZAILEEN FESTA: "BERTSOA BIZI GAZTE!"

Maiatzaren 12an Legution ospatu zen BBG eguna. Arabako bertsolari eta sortzaile gazteak batu genituen Bertsoa Bizi Gazte eta eskolarteko txapelketako finalean!



Bideoklipak, bertso idatziak, rapak, abestiak, bat-bateko bertsoak, sariak, kale jira, herri bazkaria, bertso musikatua, dantza plaza, auzolana... gutxi izango dira BBG egunean adina ekimeneko egunak. Bai horixe! Halakoxea izan zen Legution maiatzaren 12an izandakoa, demasa! Pentsa, euriak eta hotzak ere ez zuten galdu nahi izan gure eguna! Ez ziren alfertu gazteak ordea eta Arabako bailara ia guztietatik iritsi ziren kultur etxea betetzeraino. Idatzi genezakeen Aitor Ugarte eskolarteko garaile berriaz, bideo klip emanaldian txalotueenez, irabazleez...baina egunaren esentzia

galtzea litzateke. Primeran pasa genuen eguna! gaztetu ginen batzuk, hainbat gazte bertsozaletu ziren, barre egin genuen, zenbait momentutan oilo ipurdiz mozorrotu zitzaizkigun azalak, dantzan aritu ginen hurrengo egunean agujetak izateraino, edo agian mahai eta aulkiak jasotzearen ondorioak ziren... zer inporta du ba! Bertsoa gazte bizi dadila Araban eta gazteak bizi dezala bertsoa luzaroan! Gora gu!

+INFO:

Lan guztiak ikusgai Youtuben etanibanaxarabakoa.eus atarian

>> KOPLA

Akelarrean, suaren bueltan...
ez kiskaltzeko mundua,
segi zazue sorginen gisa
dantzan jartzen ingurua!



Argitalpenaren
laguntzaileak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net





TXALOMETROA OHOLTZAPETIK: GORA DEZIBELIOAK!

OHOLTZAPETIK bigarren edizioa, oholtzarik gabeko saioa, baino herriko plazaren erdian, kalean, olbean edota karrerapean ere esan genezake. Hala izan baita maiatzean zehar 16 bertsolari kantuan aritzeko aukeratutako paisaia. Baina paradoxak paradoxa eguraldiak blaitutako plaza atzean utzita finala oholtza txiki baten gainean burutu da, Murgiako Gazte-txean hain zuzen ere. Final aurreko lau jardunaldietan txalometroak neurtu du nork kantatu finalean, zeinek jaso txalo zaparradarik ozene-na eta hura izan da finalean. Hau da,

nori egin dezibelio handiagoko aupada, hura finalera. Hau da, nork eraman lagun kaudrilla zaratatsuagoa animatzera, nork eraman maskota zalapartatsuagoa, nork eraman ikasle fans talde euforikoagoa, nork eraman biloba talde iskanbilatsuagoa hura pasa da finalera, Aroa Arrizubieta, Unai Anda, Felipe Zelaieta eta Jagoba Apaolaza. Bejondeizuela!

Beraz bertsolari hasi laguneren zarata doktrinamendua, hurrengo urteko OHOLTZAPETIK egitasmoko finalista zeu izango zara!

OINAK BURUAN ETA IBILI MUNDUAN!

2000 ikasle inguruk eman zioten hasiera Arabako gaztetxoaren eskolartekoari. Badira batzuk! Lehenik taldeka bertsoak osatu eta bailarako topaketan abestu zuten sailkatuek, Oion, Aramaio, Agurain, Amurrio eta Gasteizen maiatzean zehar izaniko topaketetan. Eta gutxi balitz, azken egun handian Zigoitiako frontoian bildu ziren gaztetxo, guraso eta dozenaka argazkilari. Hala bertso eskoletan dabiltzan gure

bertsolari txikiak agurrak eta bat bateko saioa burutu zuten, eta jakin dezazuela etorkizuna majo bermatua daukagula Araban, hori da saioa hori! Ostean, bixi bixi abestu zituzten taldeek euren bertsoak eta hamaiketako baten aitzakian eman genion amaiera egunari, edo egun erdiari, eguerdirako etxerako bidean baikinaren guztiak baina bete bete atera zen aurtengo eskolartekoa. Gozatu merezitako saria Irailean!

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO IZEN EMATEA, ZABALIK

Arabako Bertsolari Txapelketa-rako izen ematea ekainean zabalduko dela... Elkarteko hauek txoratuta zeuden/k! Baino nola emango di/n/at ba orain nik izena, etzeki/n/at eta zertan ibiliko naun/ken abuz-tuan ere... igual Txinako harre-sian barna ibiliko naun/k edo Quebec-en hartz artean, Gastei-zko jaietako gure txosnan serbit-zen... A, hori aurtengoan ez! De dio! Orduan entrenatzen hasi behako di/n/at, jo ta fuego uda osoan... San Saturninotan, San Ferminetan, La Blankatan, Andra Maritan, San Roketan, San Bernardotan... San Dios ta ze Kristo! Etzeuki/n/at horrebeste bertsoarako ideik, Zotzi!, "Hola" ta eta "Marca" irakurtzen hasi beharko di/n/at piskat kulturizatzeko, kultureta bizitza ez dun/k eta batere erreza. Gainera Legaireko zelaietara igo beharko dut Egañaren margarita bila... Maite nau, ez nau maite, maite nau... Aiba, orain ez dela hori tokatzen... Zentratu! nire burua ezingo ditin/at horrenbeste errima ta oin sartu, -ari, -ori, -ura... Kanpin dendarekin joan beharko naun/k ispirazio bila... Honela gitarra eraman ta doinu berri bat ere sortu beharko dut, ez naiz ni kanta eder berri batekin ez noan bakarria izango... Baina... noiz egin behar ditin/at nik horiek denak... Kasuen, elkar-teko hauek arrazoi ziten/k 2019 hortxe zeon/k!! Bertsinia operazioa has dadila!

HEZKUNTZA ARAUTUA: BUKATU DA IKASTURTEA!



2500 ikaslek hartu dute parte aurten GU ERE BERTSOTAN egitasmoan, 2017ko irailetik maiatzera bitartean. 7 eskualde, 23 herri eta 45 ikastetxe guztira. Kopuru borobilak, azken urteetako lanak ekarritakoak. Gorbeialdea, Lautada, Mendialdea eta Aiaraaldean eskualdeko ikastetxe guztiek hartu dute parte, Errioxako kasuan D ereduko ikastetxeek eta Gasteizko kasuan Udalaren eskaintzaren baitan izena emandako D ereduko 15 ikastetxek. Añana eskualdean tailer laburrak egin dira, baino oinarritzko lan bat egitea lortu da hor ere.

Emaitza ona

Horiek horrela Arabako 10-12 urteko haur gehienek bertsolaritzaren oinarritzko ezagutza bat lortu dutela egiaztatu dezakegu, eta datozen belaunaldiak bertsoaren mekanika eta magia ezagutuko dutela. Oinarri oinarritzko lana, behar beharrezkoa gure herrialdean. 4 irakasleko lan taldea ibili da hurrekin, Iñaki Viñaspre izan da Gorbeialdeko eta Gasteizko hainbat

ikastetxeetan akuilu lana egiten, Jon Ruiz de Pinedo Lautada eta Gasteizen, Unai Mendibil Aiaraaldeko bere taifa erresumetan eta Oihane Perea Arabar Errioxa eta Mendialdeko bihurtuneetan.

Ikasturtean zehar gabonetako emanaldiak burutu dituzte, irrat-saioak, ikastoletako jaietarako bertsoak, emakumeen eguna ospatzeko egindakoak, agenda 21ekin loturikoak, bertso asmakizunak, jolasak eta bestelako kontuak, ikastetxe bakoitzaren erritmoaren arabera. Eskolartekoan buru belarri sartu dituzte ikasleak kurtso amaieran eskolan hasitakoari eskolaz kanpo jarraipena eman diezaioten ahaleginak eginez. Emaitza onak izan dira, bertso eskolak indartzea izango da hurrengo erronka. Bitartean ikasturte amaierako eskolen arteko topaketak, jaialdiak eta merendolak gerazten dira, eta urria edo hurrengo ikasturtea etorri baino lehen atsedena hartu eta pilak ongi kargatzea.

BARNETEGI BAT DUGU ZURETZAT!

Udaberrian beste eskualde batzuetako 120 hurrek izan zuten Tertanga edo Espejora joateko aukera eta gasteiztarren bat inbidiaz geratuko zen seguruenik. Aurten gainera zoritxarrez ez da izango Barrian bertso udalekurik Aldundiaren gazteria sailaren eskaintzaren barruan. Baina ez egin negarrik bertsozaleok, Gasteizko udaleko euskara zerbitzuaren diru-laguntzarekin barnetegi berri bat martxan jarri dugu eta. Gasteizko hurrek lehenengo aldiz bertso barnetegi propioa izango dute iraila hasieran, Sarriako Goikuria aterpetxean. 10-13 urteko 60 lagun elkartuko gara Gorbeia magalean irailaren 4tik 6ra. Prezioa 60 eurokoa da.

Izen ematea ekainaren 1ean hasi eta ekainaren 22a baino lehen burutu beharko da Amaia Zentroan. Bixkor ibili badaezpada ere. Izen ematea itxitakoan, zalantzak argitzeko guraso bilera ekainaren 26ean izango da, 19:00etan Amaia Zentroan.

AGENDA!

>> ZERNAHI

Ate joka dugu uda, eguzkiak ihes egin badu ere! Gasteizko jaietan ez dugu aurten txosnarik jarriko, baina bertsoak entxosnatzen jarraituko du, ez izan zalantzarik! Bertso eskolek oporrak hartuko dituzte, akaso! Hala ere, edozein herriko jaietan jarraituko dugu

bazterrik bazter kantari! Gainera, uda honetan ere makina bat herri eta auzotan egongo dira bertso saioak, Araba Bertsozale egitasmoaren baitan, gutxienez, 13 bertso saio egongo dira datozen asteetan Araban barrena! Gozatu eta ondo pasa!

"HOTZA"



Askori hitz hori heltzen zaigu mingain puntara aurtengo kuadrilartekoaren inguruan galdetzen badigute, eta bai guk ere oholtzan hotza pasa genuen.

Txustapenak kamiseten koloreak aukeratzen egin zuen lana alperrik, jertsea eta txamarra jantzi behar izan genituen gainetik.

Baina hotzak elkar biltzera eta batzera garamatza: bertso eskolan, taldean, talde batak bestearen kontra egin ordez elkarrekin dantza egitera. Pentsa, Amurrion Bapateroak aho zabalik geratu ziren gu (Aramaioko, zahar, soso horiek) dantzan hasi ginenean.

Ines Osinagak esana da "ezin bada dantzatu ez da gure iraultza", bada, gurea ere dantzatua eta kantatua izango dela esango nuke. Beraz, bildu gaitezen mahai baten bueltan edo, argazkian bezala, Unai Gomezen jertsearen bueltan, eta egin dezagun dantza.

"...eta su horren bueltan dantzan gabilta!"



Gasteizko jaiak Aihotz plazan Egunero 13:30ean

ABUZTUAK 5, larunbata

Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze

Gai-jartzailea: Aintzane Irazusta

ABUZTUAK 6, igandea

Andere Arriolabengoa, Izar Mendiguren, Igor Elortza eta

Xumai Murua Gai-jartzailea: Beñat Garaio

ABUZTUAK 7, astelehena

Aroa Arrizubieta, Julen Zulaika, Aitor Sarriegi eta

Nerea Ibarzabal Gai-jartzailea: Nieves del Alamo

ABUZTUAK 8, asteartea

Manex Agirre, Asier Rubio, Unai Iturriaga eta

Oihana Iguaran Gai-jartzailea: Maialen Kortabarria

ABUZTUAK 9, asteazkena

Oihane Perea, Peru Abarrategi, Julio Soto eta

Miren Amuriza Gai-jartzailea: Gai-jartzailea: Oier Suarez

www.bertsozale.eus/araba



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

